

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Jose Inazio Azpillaga Aldalur*

*Errezil,  
Gipuzkoa  
(1937)*

Aurkibidea



## Biografia



Errezilgo Añoia baserrian jaio zen. Gurasoak ere Errezilgoak zituen: aita bertakoa eta ama, berriz, Landarrain baserrikoa. Bost anai-arreba ziren, hiru mutil eta bi neska. 10 urtera arte ibili zen Errezilgo eskolan. Soldadutza Donostian egin zuen, eta instrukzioak Artederretan (Nafarroa). Basogintzan, altzarigintzan... ibilia da lanean. 28 urterekin, Azpeitiko Odriozolatxo baserrira ezkondu zen, eta bertan bizi izan da. Gaztetatik izan du bertsoarako afizioa.

## Zintak

### ERZ-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Data:** 2011-07-13
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

### ERZ-036

- **Proiektua:** Atala Kultur Taldea: 'Gari-lanak Errezilen'
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Zabala, Josune

### ERZ-037

- **Proiektua:** Atala Kultur Taldea: 'Gari-lanak Errezilen'
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Zabala, Josune

## Pasarteak

### 1. Baserritik bizi

- **Erref:** ERZ-020/002
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:01:22

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Gazte garaian, lurrak ematen zuenetik bizi ziren. Esne-behiak zituzten, eta esne pixka bat saldu ohi zuten "letxeriara". Txahalak ere hazten zituzten. Negu garaian, basoak inausi eta handik ateratako egurra saldu ohi zuten.

**2. Eskolako oroitzapenak**

- **Erref:** ERZ-020/004
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:03:37

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

10 urtera arte ibili zen eskolan. Irakurtzen, idazten eta kontuak egiten ikasi zuen. Adin ezberdinetako umeak elkarrekin ikasi ohi zuten, baina neskak eta mutilak aparte. Euskaraz ikasten zuten.

**3. Dotrina**

- **Erref:** ERZ-020/005
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:04:06

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

**Laburpena:**

Dotrinara sarritan, egunero edo bi egunetik behin, joan behar izaten zen. Dotrina ere euskaraz ikasten zuten.

**4. Umetako jolasak**

- **Erref:** ERZ-020/006
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:05:55

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Jose Inazioren ume garaian ez zen frontoirik Errezilen (frontoia 1955-56an egina dela dio). Eliza azpiko zumitarian ibili ohi ziren pilotan. Harrapaketan, marruan, pilotan... jolastu ohi zuten. Larruzko pilota gutxi izaten zen, eta harizkoak egiten aritzen ziren etxean; puskatutako galtzerietako haria erabili ohi zuten horretarako. Umetan, ez du jostailurik izan, pilota besterik. Idazteko arbel bat ba omen zuen.</p>

**5. Eskolatik etxera, bazkaltzera; bideko entretanimenduak...**

- **Erref:** ERZ-020/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:06:55

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

**Laburpena:**

<p>Baserritik eskolara 20 minutuko bidea zuten oinez. Ez zen kaminorik, eta goitik behera zuzen jaitsi ohi ziren. Etxera bueltan, beti izaten omen zen entretenimenduren bat: txori-habi bilatzen, marrubiak edota gereziak biltzen... Bazkaltzera etxera bueltatzen ziren; kaletik urrutik bizi ziren umeak Saletxean geratzen ziren bazkaltzen.</p>

**6. Saletxea**

- **Erref:** ERZ-020/008
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:07:42

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena:**

<p>Kaletik urruti bizi ziren baserrietako umeak Etxeberrin, Saletxe-n... geratzen ziren bazkaltzen. Jose Inaziok eta Saletxean aldatu ohi zituzten oinetakoak elizara "txukunxeago" joateko.</p>

**7. Aitak jositako abarkak eta "derrama"**

- **Erref:** ERZ-020/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:08:52

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Gerra ondorenean, aitak etxean jositako abarkak erabaltzen zituzten. Ganaduren bat akabatzen zenean, auzoko ermandadean partitzen zen ganaduaren haragia eta larrua; banaketa horri "derrama" esan ohi zitzaion. Larru hori erabili ohi zen abarkak egiteko.

**8. Belaunetarainoko galtzak eta artilezko galtzeriak**

- **Erref:** ERZ-020/010
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:09:15

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

**Laburpena:**

<p>Mutil koskorretan, belaunetarainoko galtzak erabiltzen zituen. Galtzeriak, berriz, belaunperainokoak. Izeba batek egin ohi zituen artilezko galtzeriak.</p>

## 9. Txapela, baitaituz geroztik

- **Erref:** ERZ-020/011
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:23

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

Jose Inaziok beti erabili izan du txapela: "uste dut bataiatu nintzenez gero hemen dabilkidala". Bere aitak ere jantzi ohi zuen. Gaur egun, banaka batzuk barri erabiltzen dute txapela. Elizara eta eskolara sartzeko, txapela kendu egin behar izaten zen. Apaizarekin eta auzoko edadeko batzuekin gurutzatuz gero, txapela kendu eta "ave maria purisima" esan behar izaten zuten.

## 10. Lagun artea eta Zelatungo erromeria

- **Erref:** ERZ-020/012
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:11:00

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

Beti izan da lagun arte zalea. Jaietan, bezperetara joan behar izaten zen, eta, gero, ahal zela jolasean ibili ohi zen kalean. Zelatunera joaten ohitura zuten, kamamila (mantzanilla) biltzeko aitzakian. Irailean, San Joan Txiki domezka hasita, erromeria izaten zen Zelatunen.

## 11. Etxeko jeneroarekin bizi

- **Erref:** ERZ-020/013
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:11:53

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

### Laburpena:

<p>Baserriko lanak. Labore asko egiten zuten baserrian: artoa, baba, garia, patata, arbia... Soroa ahal zen dena gorritzen zuten. Patata egiten zen ahal bazen, leku txarrenetan. Udazkenean, garia egiten zuten, eta, hura kendutakoan, arbia. Udaberrian, berriz, artoa jarri ohi zuten garia eta arbia hazitako lurretan. Behien simaurra erabiltzen zuten soroa ongarrizteko.</p>

## 12. Zazpi behi, gehienez

- **Erref:** ERZ-020/014
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:12:22

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

<p>Krisiari buruzko gogoeta egiten du. Lehen, beti ganajatekoa egiten aritzen ziren. Zazpi behi izaten zituzten baserrian, gehienez. Txahalak hazten zituzten, eta behi-esnea ere saldu ohi zuten.</p>

**13. 13 urte zitueneko urtea...**

- **Erref:** ERZ-020/015
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:13:19

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

**Laburpena:**

Baserriko lanak. Eskulana asko izaten zen lehen. Negurako belarra, behientzat azpigarriak egiteko, bildu ohi zuten menditik. 13 urte egin zituen urtea anai zaharrenarekin segan pasatu zuela dio. Goizean, eguna argitzerako joaten ziren mendira gosari txikia eginda, eta, gero, beste gosaria eramaten zuten mendira. Mendian ere askotan bazkaltzen zuten, 'Saletxe'-an. Belarra ebakitzen anaia eta Jose Inazio ibiltzen ziren; belarra etxera eramateko, aita joan ohi zitzaien ganadu eta lerarekin.

**14. Egurra inausteko ilargiari begiratu behar**

- **Erref:** ERZ-020/016
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:14:22

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Natura » Meteorologia

**Laburpena:**

Ilargia eta eguraldia kontuan izaten zuten baserriko lanetarako. Ilargiari gehien begiratzen zitzakion egurra inaustererakoan. Pagoa ilberrian inausten zuten, eta, haritza, berriz, ilbeheran. Jose Inazioren aitak "zorrontz begiratzen zien" ilargi kontuei zuhaitzak botatzerako garaian. Ilargiari begiratzeaz gain, neguan botatzen zituzten zuhaitzak; "izerdirik ez duten garaian, gaua luzea denean". Laborea egiteko, ostera, giroari begiratzen zitzaion gehiago.

**15. Garia, artoa eta baba**

- **Erref:** ERZ-020/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:15:53

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena:**

Laborea. Garia egiteko lurra biratu egin behar izaten da: laiarekin edo

goldearekin lurra bueltatu behar da ahal zen azpirenetik. Gero, lurra aitzurtu, hazia bota eta "aria" pasatzen behar da. Artoa egiteko, berriz, lurra "goxatzen" aritzen ziren. Artoa maiatzeko aurreneko egunetan egiten zen, eta, artoa ernetzen zenean, baba sartu ohi zen aitzurrarekin. Bareak baba jan egin ohi zuen, eta zaintzen aritu behar izaten zen. Karea erabiltzen zuten lurra ongarritzeko.

## 16. Karobiak eta karea

- **Erref:** ERZ-020/019
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:16:32

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

### Laburpena:

Ez zuen etxean karea egiten ezagutu. Inguruan baziren karobi zuloak. Kare gutxi erabiltzen zuten; bestelako ongarriak ere izaten ziren. Albizturen ba omen ziren martxan zeuden karobiak, baina ez zen hura erosteko dirurik izaten.

## 17. Arbia, abuztuaren 10etik aurrera

- **Erref:** ERZ-020/020
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:17:35

### Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

### Laburpena:

Laborea. Arbia abuztuan ereiten zen. Jose Inazioaren aitak abuztuaren 10ean, San Lorentzo egunean, eman nahi izaten zion hasiera lanari. Arbi hazia ereitea: goiz partean hasi eta eguardira bitartean egin nahi izaten zuen aitak. Eguraldiari begiratzen zioten horretarako: arbia "lehorrean" egiten zen. Arbiari buruzko esaera bat aipatzen du: "arbia egin eta etxerakoan, langan, eskatu omen zuen arbiak euria".

## 18. Baratzea eta txahalak gizontzeko ore

- **Erref:** ERZ-020/021
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:18:19

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

<p>Baratzerako lan gutxi izaten zen. Aza, kipula eta porrua izaten zuten, baina saltzeko behin ere ez. Txahalak gizontzeko, patata eta arbia artairin edo zai pixka batekin egositako ore prestatzen zuten.</p>

## 19. Amarekin Tolosako azokara

- **Erref:** ERZ-020/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:57

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

### Laburpena:

<p>Oilaskoak eta arrautzak saldu ohi zituzten. Lehen, hegazti asko izaten zen laborea (artoa) egiten zelako... Jose Inazioaren amak tratura Tolosako azokara joateko joera zuen. Autobusean egiten zuen joan-etorria. Sagar boladan, seme-alabek ere lagundu ohi zioten Tolosara. Amari laguntzera joatea "erromeria" izaten zen: otarrak eramaten eta jartzen lagundu, gosari legea egin... Ilusioa izaten zuten amarekin joateko.</p>

## 20. Azkoitiko 'Correo' eta 'Goiko Errota'-ko autobusa

- **Erref:** ERZ-020/024
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:20:50

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

### Laburpena:

<p>Herrira saltzera. Tolosara autobusean joaten ziren. 'Correo' esaten zioten Azkoitiko autobusa eta Goiko Errotako autobusa, larunbatero Azpeititik Tolosara joaten zena, aipatzen ditu. 'Correo' autobusaren gainean otarrak eta jendea joan ohi zen.</p>

## 21. Tolosako salmenta

- **Erref:** ERZ-020/025
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:00

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

### Laburpena:

Tolosako salmenta. Eguerdi partea, paper-lantegiko langileak ateratzen ziren garaia, izaten omen zen sagarra saltzeko une egokia: lehen ez baitzen gaur adina fruta aukera. Noiz edo noiz, saldu gabe gelditutako otarra bete sagar Tolosako dendaren batean utzi izan zutela kontatzen du, hurrengo astean saldu ahal izateko.

## 22. Azpeitira, sastrearengana

- **Erref:** ERZ-020/026
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:22:57

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

**Laburpena:**

Enkarguak egitera Azpeitira joaten ziren. 'Correo'-n joan ohi ziren Azpeitira. Arropa berriren bat egin behar zutenean, Eloi sastrearengana joaten ziren. "Okasioren baterako" egin ohi zen trajea, kongregazioko zinta hartzeko...

**23. Udaberrian, ziza biltzera**

- **Erref:** ERZ-020/028
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:23:38

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

**Laburpena:**

<p>Udaberrian, gurasoak siesta egitera joaten zirenean, ziza bila joaten omen ziren Hernio aldera. Hernio aldeko parajeak ondo ezagutzen ditu: "han ikasi genuen oinez" dio.</p>

**24. 20 urterekin, Sarralle lantegira**

- **Erref:** ERZ-020/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:59

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena:**

<p>Lanera hasi zen arte Azpeitira oso gutxi joaten omen zen. 20 urterekin, Azpeitiko Sarralle lantegian hasi zen lanean, kalderak egiten. Egunero joaten zen Azpeitira bizikletaz. Lantegi horretan bi urte egin zituen, soldadu joan zen arte. Harreman ona zuen nagusiekin; haien izenak aipatzen ditu. Lantegian lanean hasi zenean, baserriko lanetatik "librexeago" egoten omen zen; anaia zaharrena egoten zen etxean.</p>

**25. Soldadutza, Donostian; instrukzioak, "Carrascalen"**

- **Erref:** ERZ-020/031
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:25:59. **Bukatu:** 00:28:48

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

Soldadutzako oroitzapenak. 22 urterekin, soldadu joaten zen. Soldadutza Donostian egin zuen, eta instrukzioak, berriz "Carrascalen" (Artederreta, Nafarroa). "Egun bat horrela, txarra esateko, ez nuen pasa, eta gustura ere behin ere ez!". Soldadutza "arina" izan zela dio: 15 hilabetetatik bost etxean

pasatu zituen permisoarekin, eta, Donostian zegoenean, asteburuan etxera bueltatu ohi zen.

## 26. Astigarraga eta Ergobiko sagardotegiak

- **Erref:** ERZ-020/032
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:48. **Bukatu:** 00:29:55

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

Soldadutza garaiko kontuak. Donostian soldadu zegoela, Astigarraga eta Ergobi aldeko sagartegietara joaten omen ziren. Garai hartan, sagardotegi ugari izaten zen, eta "huskeri batean, bi txakur handiren" truke bost basokada sagardo ematen omen zien.

## 27. "Errezilen, sagar gehiegi izaten zen..."

- **Erref:** ERZ-020/034
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:31:23

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

### Laburpena:

<p>Sagar dezente biltzen zuten, eta, gero, Agarretxe baserriko dolarean egiten zuten sagardoa. "Errezilen, sagar gehiegi izaten zen gu gazte ginen garaian". Sagar asko izaten zen urtean, saltzen lanak izaten omen ziren: herrian, Gasteizerako eta Eibarrerako kamionak antolatzen ziren.</p>

## 28. Txerrikiak eta taloa

- **Erref:** ERZ-020/036
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:32:58

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

### Laburpena:

<p>Gerra ondoreneko urteez hitz egiten du. Kanean ez zen jatekorik; baserrian, berriz, jana izaten zen. Urtean, bi txerri hiltzen zituzten. Txerriki asko jaten zuten. Ez zen ogi nahikoa izaten, eta taloarekin "osatzen" ziren. Egunean hirutan erretzen omen zuten taloa. Errezilgo baserrietara kaleko mutil koskor asko joaten omen zen, mantentzen aldera, lanera.</p>

## 29. Donostian, bi urte basolanean

- **Erref:** ERZ-020/040
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:34:58. **Bukatu:** 00:36:30

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena:**

<p>Soldadutza bukatu ondoren, Donostian egin zituen bi urte Uliako 'Mendiola' baserrian lanean. Baserri horretan, basolanetan aritzen zen gehien bat, baina baratzean eta soroan ere izaten zen lana. Sagardoa bertan egiten zuten, eta merenderoa ere bazen.</p>

**30. Laia eta auzolana gustuko**

- **Erref:** ERZ-020/044
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:38:36

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena:**

Anaia zaharrena soldadu egon zen denboran, Jose Inaziok maiorazkoa eduki zuen, eta laian asko aritzen omen zen. Gustuko lana zuen hori, lagun artean egiten baitzen. Emakumeak aitzurrean, eta gizonezkoak laian aritzen ziren. Auzolanean dezente ibilitakoa da.

**31. Odriozolatxoko bidea, auzolanean**

- **Erref:** ERZ-020/045
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:39:14

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana

**Laburpena:**

<p>Odriozolatxo baserri inguruko bidea Jose Inazio eta emaztea ezkondu ziren urtean hasi omen ziren egiten auzolanean. 1964an hasi ziren bidea egiten.</p>

**32. Herri ardoa eta auzolana**

- **Erref:** ERZ-020/046
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:40:21

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

**Laburpena:**

Auzolana. Errezilen, bideak konpontzen askotan ibilia da. Herritik hasi eta Zelatunera arteko bideak konpontzen ziren. Bakoitzak bere jatekoa eramaten zuen, eta ardoa herriak jartzen zuen. Urtero egiten zen auzolana izaten zen bide konponketa.

### 33. Bide konpontzea

- **Erref:** ERZ-020/047
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:43:45

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

#### Laburpena:

<p>Bide konponketari buruz hitz egiten du. Galtzada nola egiten den azaltzen du. Bailaran lurak zituzten guztiei ematen zitzaien abisua bideak konpontzera joateko; gizonezkoak jarduten ziren lan horretan. Emakumeak beste auzolan batzuetara joan ohi ziren: baba biltzera, esaterako. Hernio ondotik edo sorotik ateratako harriak erabiltzen zituzten. Harria eta lurraz baliatzen ziren galtzadak egiteko. Urtean, hiru-lau arratsalde emango zituzten eginkizun horretan.</p>

### 34. Bertsoarako zaletasuna, aitagandik jaso

- **Erref:** ERZ-020/049
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:48:39

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

#### Laburpena:

<p>Bertsozale ikaragarria da. Aitagandik datorkio zaletasuna. Gauetan, artazuritzeko garaian, bertso zaharrak kantatzen aritzen omen zen aita ganbaran. Bertso zahar baten letra esaten du.</p>

### 35. Ferian, bertsopaperak erosi aitak

- **Erref:** ERZ-020/050
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:48:39. **Bukatu:** 00:49:13

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

#### Laburpena:

<p>Feria egunetan, bertsopaperak salgai egoten omen ziren. Jose Inazioren aitak erosi ohi zituen. Etxean bertsopaperak izaten zituzten.</p>

### 36. Iturzaetak errazionamenduari jarritako bertsoak

- **Erref:** ERZ-020/056
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:54:12

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

**Laburpena:**

<p>Korostieta baserriko Frantzisko Iturzaetak gerrari eta errazionamenduari jarritako bertsoak esaten ditu.</p>

**37. Errazionamendu garaiaz**

- **Erref:** ERZ-020/058
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:54:59. **Bukatu:** 00:56:11

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

**Laburpena:**

<p>Errazionamenduari buruz hitz egiten du. Aitak errazionamenduko tabakoa erretzen omen zuen. Jose Inazioren aitak gutxi erre ohi zuen, eta sobratzen zitzaion tabakoa saldu egiten zuen. Ogi beltza nolakoa izaten zen deskribatzen du. "Boniatoa" (batata) ere errazionamenduan partitzen zuten, baina ez zuten hura jan nahi izaten.</p>

**38. Txerri-hiltzea**

- **Erref:** ERZ-020/059
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:56:11. **Bukatu:** 00:57:45

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

**Laburpena:**

Txerri-hiltzeari buruz hitz egiten du. Auzoko gizon bat ibiltzen zen eginkizun horretan. Kontrabando garaian, txerriak ezkutuan hazten ziren, eta beldurra izaten zen inork salatzeko; txerria etxean erretakoak dira, baita mendian ere, sasia erretzeko itxurak egiten ari zirela. Olioia falta izaten zen, eta babei urdai pusketa botatzen zien gozatzeko.

**39. Gazi-kutxa**

- **Erref:** ERZ-020/060
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 00:59:38

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Txerriak eta haragia gatzetan igurtzita kutxa batean gordetzen zen. Urdaia ondo hoztuta sartu behar izaten zen gazi-kutxan, eta gatza jarri gero. Bi egunetik behin, txerriekie buelta eman ohi zitzaien. Kutxaren gainean, harri handi batzuk jartzen ziren ondo estutzeko; gesala atera zedin. Amak egin ohi zuen lan hori.

**40. Txorizoak**

- **Erref:** ERZ-020/061

- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:59:38. **Bukatu:** 01:00:15

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Txorizoak egin eta gero, nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

## 41. Bidanira, olio bila

- **Erref:** ERZ-020/062
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:00:52

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Errazionamendu garaiari buruz hitz egiten du. Errezildik baino jenero gehiago inguratu ohi zen Bidanitik. Olio bila joan ohi ziren hara.

## 42. Estrako irina

- **Erref:** ERZ-020/063
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:00:52. **Bukatu:** 01:01:41

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena:**

<p>Taloa egiteko irin ona nahi izaten zen. Estrako irina gustatu ohi zitzaion Jose Inazioaren amari. A&ntilde;oitik astoa hartuta joan ohi ziren errotara, hiru orduko buelta izaten omen zen. Ganaduarentzako irina, berriz, Errezilgo kaleko Belamendiko errota elektrikotik hartu ohi zuten.</p>

## 43. Errezilgo errotak

- **Erref:** ERZ-020/064
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:01:41. **Bukatu:** 01:03:25

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena:**

<p>Garai batean, Errezilen ziren errotak izendatzen ditu: Arabe, Belamendi, Lizarreta Errota, Landarrain Errota, Erkizi, Zurrunzola, Kurutzeta eta Estra. Azpeitiko partean, Barrenola eta Gazteko errotak aipatzen ditu. Lehen, errotariak fama handia izan ohi zuten.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-25*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com